

# Nor da Jesu Kristo?

JAKIN NAHI  
NUKE...



---

**Aurkitu bizi berria Kristorengan!**

Hau da dizupulua izaten ikasteko BIZI BERRIA KRISTORENGAN izeneko gidaliburu andana bateko lehenengo liburua.

Zuri Jesusen benetako nortasuna aurkitzen eta nola izan bizi berria Berarengan ikasten laguntzea da liburu honen asmoa. Informazio gehiago nahi izanez gero:

E-posta: [info@nuevavidaencristo.org](mailto:info@nuevavidaencristo.org)

Liburu hau eta bilduma osatzen duten beste hiru liburu (1, 2, 3 y 4) aurkitzen dira formato elektronikoa interneteko orrialde honetan: [www.nuevavidaencristo.org](http://www.nuevavidaencristo.org)  
Gaztelaniazko eta ingelesazko bertsioak ere aurki daitezke webgune berean.

Lehenengo argitaldia 2007. Eskubide guztiak gordeak Mark Robinson  
Badago fotokopiak egitea, baina beharrezkoa da jatorrizko iturria  
aipatzea, edukia eta formatua aldatu gabe. NVECeko banatzaile  
ofiziala eskuratu nahi den herrialdean, eskatzen dabanatzaile horri erosteko  
(ikus behean agertzen den zerrenda) kalitatea mantentzeko.  
Zure herrialdean material hau inprimatu eta kopuru handitan banatu  
nahi baduzu, baimena eskatu behar diezu erredaktoreei.  
Bidali zure eskaria helbide honetara: [info@nuevavidaencristo.org](mailto:info@nuevavidaencristo.org)

Mark Robinsonek egindakoa  
8625 La Prada Dr., Dallas, TX 75228

### **Banatzaile ofizialak:**

Euskal Herriko Kontseilu Ebanjelikoa  
Cementerio Británico  
C/Txorierrri, 1  
48180 - LOIU

Bidea Elkartea  
[bideaelkartea@yahoo.com](mailto:bideaelkartea@yahoo.com)

# AURKIBIDEA

Irakaslearentzako gida .....	4
1.Urratsa Jesus, biziaren Sortzalea .....	6
2.Urratsa Jesus, Jainkoaren Arkumea .....	8
3.Urratsa Jesus, Artzain Ona .....	10
4.Urratsa Bizirik dago! .....	12
5.Urratsa Kristo, nire Abokatua .....	14
6.Urratsa Kristo, Erregea .....	16
Txatal Biblikoak .....	21

# IRAKASLEARENTZAKO GIDA

1. Pozten gara, gidaliburu hau erabiliz, beste norbaiti Kristorengan dagoen bizi berria aurkitzen laguntzeko desafioa onartu duzulako. Ikasketa hau egiteak badauka betiko emaitzak ematea.
2. Galderak erantzutean, utzi Bibliari zure aginpidea izaten. Ikasleak pasarte biblikoak bilatu eta galderak bere kabuz erantzun behar ditu Bibliak dioenaren arabera.

Batzuek laguntza behar izango dute pasarteak Biblian aurkitzeko.

3. Badago gidaliburu hau era askotara erabiltzea. Kasu gehienetan, ikasleak astean ikasgai bat egin behar izango du irakaslea egitera animatzen ari delarik.
4. Irakaslearekin biltzen zarenean, ez luzatu bilera.
5. Animatu ikaslea bere hitzak erabiltzera galderak erantzuten dituenean, Bibliako hitzak kopiaatu beharrean. Horrek lagunduko dio aztertzen dituen testuen esanahia analizatzen.
6. Ez predikatu ikasleari. Erabili galderak ikasleak ulertzen duena aurkitzeko eta parte hartzera animatzeko.
7. Irakaslearekin bildu aurretik, ondo prestatu zure burua. Irakaslea izanik, zuk ikasgaiaren edukia eta ideia naguziak ondo ezagutu behar dituzu.

Batez ere, prestatu zure bihotza eta otoitz egin zure ikaslearen alde.

8. Erne egon Jainkoa ikaslearen bizitzan egiten ari dena ikusteko. Bilera bakoitzean, utzi denbora ikasleak duen galdera bat erantzun ala bere bizitzan duen arazo bat konpontzen lagundu ahal izateko.

9. Saia zaitzte irakasleari pentsarazten nola erabili behar duen ikasten duena bere bizitzan.



“STOP” irudiak ikasgaiak ikusten dituzunean, gelditu une batez han agertzen diren galderak gogoan hartzeko. Ikasgai batzuen aldean agertzen diren eginkizunek asmo bera dute. Erabil itzazu.

10. Lagun iezaiozu ikasleari otoitz egiteko ohitura garatzen. Zuk zeuk irakatsi, berarekin otoitz eginez.
11. Ulertu behar da Kristo ezagutzea ikasgaiak egitea baino askoz gehiago dela; gure bizitza aldatu behar du. Gidaliburu hau bukatzean, jarrai dezakezu Bizi Berria Kristorengan bilduma osatzen duten beste hiru liburuak aztertzen.  
  
Gidaliburu hau lehenengo urratsa besterik ez da, ikasleak askoz gehiago behar baitu bere izaeran, pentsaeran eta ohituretan aldaketak ikusteko.
12. Lagun iezaiozu ikasleari ohitura berriak bere bizitzan garatzen, adibidez, egunero Biblia irakurtzen eta otoitz egiten.
13. Baliteke ikasgaiak agertzen diren galdera guztiak aztertzeko aski denbora ez izatea. Horrela izanez gero, aukeratu ideiarik garrantzitsuenak eta hitz egin haietaz.
14. Gidaliburu hau bukatzean, animatu ikaslea Biblia aztertzen jarraitzera Bizi Berria Kristorengan osatzen duten beste liburuak erabiliz.

*“Zeren Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme sortu bakarra eman baitzuen, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.”*

*Joan 3:16*





## 1.Urratsa

# Jesus, biziaren sortzailea

Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

- \_\_\_\_\_ Gaur egun, gehienek bizi hobea izan nahi dute.
- \_\_\_\_\_ Erljio guztiak zerura eramaten gaituzte.
- \_\_\_\_\_ Aski ahalegintzen banaiz, betiko bizia lortuko dut.
- \_\_\_\_\_ Inor ezin da ziur egon zerura joango den ala ez.

Nor da Jesus? Hamar laguni galdetuko bagenie, agian hamar erantzun ezberdin emango lizkigute. Batzuek esango lukete gizon eta irakasle handia zela eta, besteek, Jainkoaren Semea. Batzuek miresten dute soldadu erromatarrek egin zizkioten torturak jasan zituen ererengatik. Haren garaian, batzuek uste zuten Jainkoak

bidalia zela. Aldi berean, besteek engainatzailetzat edo jendea asaldatzen zuen gizon arriskutsutzat hartzen zuten. Hainbeste iritzi ezberdin daudenez gero, ikus dezagun zer dioen Bibliak Jesusi buruz. Bilatu zure Biblian aipatutako pasarteak. Bibliarik ez baduzu, txatal guztiak aurki ditzakezu 21. orrialdean hasita.

### JESUS: BIZIAREN SORTZAILEA

1. Zer irakasten digute txatal hauek Jesusi buruz? Oharra: Joaneke "Hitza" deitzen dio pasarte honetan Jesusek, haragitu zenean, Jainkoa gizakien artean aditzera eman zuelako.

Joan 1:1 \_\_\_\_\_

Joan 1:3 \_\_\_\_\_

Joan 1:4 \_\_\_\_\_

2. Pentsatu pixka bat. Jesus betiereko Jainkoa, mundu osoaren Sortzailea da. Hala eta guztiz ere, nola erabili zuten beretarrek? Joan 1:11 \_\_\_\_\_

Gaur egun, nola erabiltzen dute Jesus gehienek? \_\_\_\_\_

Askok diote Jesusengan sinesten dutela. Esaten dute bere jarraitzaileak direla, baina bizi dira bere irakaspenak kontuan hartuko ez balituzte bezala. Badago Jesus bazterten duen jendea ere, "Ez", behin betiko esaten duena. Besteak axolagabeak dira. Bazterten dute honelako gauzak esanez, "Beste egun batean", edo "Oso lanpetuta nago; ez dut denborarik."



### JESUS: BIZIRAKO BIDEA

3. Joan 14:6an Jesusek esan zuen bidea, egia eta \_\_\_\_\_ dela.

4. Askok uste dute erlijio guztiak Jainkoarengana eramaten gaituztela. Zer uste duzu zuk? \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ Jesusek dioenaren arabera, zenbat bide daude? \_\_\_\_\_

Nahiz eta guk hau askotan entzun, "Erljio guztiak zerura eramaten gaituzte.", Joan 14:6an Jesusek kontrakoa dio. Hau ez da besteak baztertzeko kristauok asmatu dugun zerbait, Jesusek berak baieztatu zuena baizik.

### BAINA...BADAGO ARAZO BAT

5. Behin Jesusek hitz egin zuen Nikodemo izena zuen gizon batekin. Hura gizon ona eta jendeak begirune zion irakasle erlijioso zen. Dena dela, Jesusek esan zion zerbait beharrezkoa zuela. \_\_\_\_\_ Joan 3:3
6. Berrito jaio? Zergatik? Nola? Berrito jaiotzeaz hitz egin zuenean, zer esan nahi zuen Jesusek?  
\_\_\_\_\_

Zer deritzozu segidan aurkitzen den aipamenean gizonak esan zuenari? Ba ote daki bizitzari buruzko zerbaiz, gehienek ez dakiten zerbaiz?

*Behin, predikatzaile ezagun bati esan zioten handik gutxira hilko zela pairatzen ari zen gaixotasunagatik. Maite zituen mendi, ibai eta izarrei begiratu eta esan zuen:*

*“Agian ez zaitut maiz ikusiko, Mendia, baina bizirik egongo naiz desager zaitzenez; eta zu, Ibai Handia, baina bizirik egongo naiz itsasoratzeari utz diezaiozunean; eta zuek, Izarrak, baina bizirik egongo naiz zerutik eror zaitzenez...”<sup>1</sup>*



### NOLA EGON ZAITEZKE ZIUR BETIKO BIZIA DUZULA?

- ✓ Onartu bekataria zarela. Aitortu ez zarela gai aurkitzen zaren bekatuaren zulotik ateratzeko.
- ✓ Erabaki utziko diozula Jainkoari zu zure bekatuetatik salbatzen (damutu). Eskatu hari hori egiteko.
- ✓ Sinetsi Jesu Kristo zure lekuan hil zela, baina hildakoengandik piztu ere..
- ✓ Otoitz egin Jesu Kristo zure bizitzara sartzera gonbidatuz eta zure bizitza bere kontrolpean hartzen utziz. Segidan aurkitzen den otoitzak lagunduko dizu hori egiten:

*Jesus Jaun maitea:  
Badakit bekataria naizela eta zure barkamena behar dudala. Sinesten dut zu hil zinela nire bekatuengatik. Mesedez, salba nazazu haietatik. Oraintxe bertan, nire bizitzara sartzera gonbidatzen zaitut. Zutaz fidatzen naiz nire Salbatzaile bezala eta jarraituko dizut nire Jaun bezala. Eskerrik asko, Jauna, ni salbatzeagatik.  
Amen.*

7. Berrir jaiotzea beharrezkoa zen zeren \_\_\_\_\_ baiken

\_\_\_\_\_ Efesoarrei 2:1

Nolakoak ginen? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ Efesoarrei 2:3

Familia, auzoko eta lagunaren arteko erresuminek, gatazkek eta tirabirek agerian uzten dute gure heriotza espirituala. Ezin ditugu gure irrika gaiztoak kontrolatu. Norberekeriaz eta harrokeriaz diogu: “Ni besteak baino lehenago”, “besteak baino hobea naiz”, “ni ez naiz haiek bezain gaiztoa”.

8. Hala eta guztiz ere, Jainkoak esaten digu \_\_\_\_\_ Efesoarrei 2:5.

### JESUS: BIZIA EMATEN DUENA

9. Jesusek esan zuen berrir jaiotzea beharrezkoa zela. (Joan 3:3) Nola jaiotzen da? Irakurri Joan 3:16-18 Joan 3:16aren arabera, guri dagokigunez, nolako jarrera du Jainkoak? \_\_\_\_\_

Jainkoak hain maite gintuen non Bere Seme Jesu Kristo eman baitzuen.

Zer eskaintzen du Jainkoak Jesusen bidez? 16.tx. \_\_\_\_\_

Nortzuk dira betiko bizia izan dezaketenak? 16.tx. \_\_\_\_\_

Gogoan izan behar dugu “betiko biziak” erreferentzia egiten diola zeruko gure etorkizunari, baina orain dugun bizi berriari ere. Joan 5:24ean ikusten dugu fededuna “igaro dela dagoeneko heriotzatik bizitzara.”

10. Egia ote da Jainkoa beti haserre dagoela eta gu zigortzea gogoko duela?

Joan 3:17. Zer nahi du Jainkoak munduarentzat? \_\_\_\_\_

Beraz, norbait kondenatua bada, zergatik aurkitzen da horrela? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ Joan 3:18

11. Gu kondenatu beharrean, Jainkoak benetan nahi duena gu Bere seme-alabak izatea da. Nola egin gaitezke Jainkoaren seme-alaba? Joan 1:12

Zer esan nahi dute “sinetsi” eta “onartu” aditzek? \_\_\_\_\_

Askok buruz sinesten dute baina ez bihotzez. Nolako aldea dago haien arte?

### Hartu tarte bat ikasgai honen egiak hausnartzeko.




- Nolakoak da zure bizitza? Nekatuta al zaude ondo bizitzen saiatzeaz asmo hori lortu gabe?
- Orain arte, zer iritzi diozu Jesusi?  Interesik ez  Ukapena  Obedientzia  Errespetua, baina urrutitik  Ez dut asko pentsatu berari buruz
- Jaso al duzu Kristok eskaintzen duen bizia?  Bai  Ez  Ez nago ziur

### Gaur hilko bazina eta zerura sartzeko baimena eskatzera jango bazina eta Jaunak galdetuko balizu, “Zergatik utzi behar dizut zerura sartzeko?”, zer erantzun zenuke?

Ikusi ezkerrean dagoen azalpena: NOLA EGON ZAITEZKE ZIUR BETIKO BIZIA DUZULA?

## 2.Urratsa

# Jesus, Jainkoaren Arkumea



Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

- \_\_\_\_\_ Antzina arkumea erabiltzen zuten bekatuagatik sakrifizioa egiteko.  
 \_\_\_\_\_ Bibliak dio Kristo arkumea bezala eraman zutela hiltzera.  
 \_\_\_\_\_ Zerura sartzeko, zure izena Arkumearen biziaren liburuan idatzita izan behar duzu.

Elisabet izena zuen neska batek gaixotasun bakana pairatzen zuen. Sendatzeko zuen itxaropen bakarra zen bost urteko bere anaia txikiarengandik odol-transfusia jasotzea. Mirariz, hark gaixotasun bera gainditu zuen eta, zegoeneko, bere odolak bazituen gaixotasunari aurre egiteko antigorputzak. Medikiak gauza hauek azaldu zizkion mutikoari eta galdetu zion ea prest zegoen bere arrebari odola emateko.

Une batez galdera gogoan hartu eta esan zuen, "Nire arreba Elisabet salbatuko badu, emango diot nire odola."

Gero, bere arrebaren ondoan zegoen ohean zetzanean eta bere odola bere arrebaren gorputzean sartzen hasi zenean, irribarre egin zuen Elisabeten aurpegi zurbilera kolorea itzuli zela ikusi zuenean. Orduan, bat-batean, irribarre desagertu egin zen eta emeki galdetu zion medikuari, "Berehala hasiko al naiz hiltzen?" Hain txikia izanik, ez zuen ulertu medikuaren azalpena. Uste zuen bere odol guztia emango ziola Elisabeti. Hala eta guztiz ere, prest zegoen bere bizia bere arrebaren alde emateko. Ikasgai honetan, beste sakrifizio bat ikusiko dugu, historiako handiena.<sup>2</sup>



ARKUMEAREN  
ODOLAK ETXEA  
BABESTU ZUEN

### SAKRIFIZIOA

1. Joanek hau esan zuen Jesusi buruz, "munduaren \_\_\_\_\_ kentzen duen Jainkoaren \_\_\_\_\_."

"Jainkoaren arkumea" esaldia ulertzeko, Itun Zaharrera jo behar dugu. Hor ikusten dugu juduek arkumeak erabiltzen zituztela beraien bekatuengatik sakrifizioak egiteko. (Lebitarra 4:32) Egipton esklaboak zirenean, Jainkoak hamar izurri bidali zituen faraoia komentzitzeko israeldarrak Egiptotik ateratzen uzteko. Jainkoak azkeneko izurria bidali zuen Egiptoko familia guztien lehensemea hiltzeko asmoz. Juduek, beraien lehensemeak salbatzeko, arkumea hil eta etxeko ategainak eta alboak odoleztatu zituzten. (Irteera 12:1-13)

2. Adamen garaitik, bekatuak bahituta aurkitzen dira gizakiak. Zerez ordaindu zen gure berrerospenaren prezioa? Urrez edo zilarrez? Ez! Bere lehen gutunean, Pedrok esan zuen prezioa askoz altuagoa zela. (1.Pedro 1:18,19) 19.txatalean dio "baliogabeko bizimodu batetik berrerosiak izan ginela ez gauza ustelkorrez, zilarrez edo urrez, baizik eta, \_\_\_\_\_ bezala, Kristoren balio handiko \_\_\_\_\_.

1 Pedro 2:24ean, azaltzen du Kristok gure \_\_\_\_\_ eraman zituela bere gorputzean gurutzean zegoenean. Guretzat, gure berrerospena dohainik izan zen, baina, Kristorentzat, ordaindu zuen prezioa oso altua izan zen.

3. Isaias 53:3-7ko pasartean, ikusten dugu Isaiasek Jesus Jainkoaren arkumea bezala aurkezten duela. Bere bizia gure alde eman zuen arren, nola tratatu zuten? 3.tx. \_\_\_\_\_  
 Munduko historian zehar, inoiz ez da aurkitu Jesusen eredu, bere maitasunari eta sakrifizioari dagokienez, baino handiagorik. Hala eta guztiz ere, gehienek gutxietsi zuten bere sakrifizioa. Gaur egun, gehienek jarrera ezberdina al da? \_\_\_\_\_ Ezer ez da aldatu. Bere sakrifizioa ukatzen jarraitzen dute. Batzuek iseka egiten dute. Beste askori ez zaio axola. Gehienak sinesgogorrak dira. Eta zu? Nola tratatzen duzu Kristo?
4. Zergatik zulatu zuten Jesus? Isaias 53:5 \_\_\_\_\_
5. 6.txatalean, Isaiasek dio bekatuak eramaten gaitu \_\_\_\_\_ egitera.

Ardiak larre bila dabilta, askotan artzainarengandik urruti. Noizean behin, galdu eta arriskuan aurkitzen dira. Bekatu egitea nahita desobeditzea ez ezik, Jainkoak nahi duena egin beharrean guk egin nahi duguna egitea ere bada. Aukeratu dugun bidetik joaten garenean, ematen du ondo gabiltzala, baina geroago zeharo galduta geldituko gara. Gure bideak eramaten gaitu erabaki okerrak hartzera, jarrera txarrak izatera eta gauza desegokiak egitera.



6. Gutako zenbat desbideratu gara bidetik? *Isaias 53:6* \_\_\_\_\_

7. Zer egin zuen Jainkoak guri bide zuzenera itzultzeko aukera emateko? *6,7.tx.* \_\_\_\_\_



**Laburbilduz:** *Jesus Jainkoaren Arkumea dela esaten dugunean, horrek esan nahi du bere bizia gure alde eman zuela gure zigorra bere gain hartuz.*

### Bekatua eta ni

Zein bidetatik ibiltzen naiz ni egunero? Orokorrean, ibiltzen naiz:

- Nire bidetik     Jainkoak marratu duen bidetik     Ez nago ziur

Nola agertzen da bekatua nire bizitzan? \_\_\_\_\_

Hartu gogoan zure egoera eroritako pertsona bezala eta zu berrerosteko arkumeak egin zuen sakrifizioa.

### ARKUMEA ETORKIZUNEAN

8. Apokalipsia 12:10,11n, Joaneke hitz egiten du etorkizunean zeruan gertatuko den gertaera bati buruz. Fededunek Satanas garaituko dute. Nola garaituko dute?

11.tx. \_\_\_\_\_

Eta inor biziaren liburuan idatzita aurkitua izan ez bazen...?



9. Nortzuk dira zeruan sartuko diren bakarrik?


Apokalipsia 21:27 \_\_\_\_\_

10. Nolako patua izango du biziaren liburuan idatzita ez dagoenak? Apokalipsia 20:15

\_\_\_\_\_

### Nor sartuko da zeruan?

Arkumearen biziaren liburuan idatzita daudenak bakarrik. Apokalipsia 21:27



### Idatzita al zaude biziaren liburuan?



Idatzita al zaude Arkumearen biziaren liburuan?  Bai     Ez     Ez nago ziur

Zer egin behar duzu Arkumearen biziaren liburuan izena emateko? \_\_\_\_\_

Ba al dago hori egitea eragozten dizun zerbait? Zer da? \_\_\_\_\_

Ikusi behean dagoena

### **Erabil dezakezu segidan aurkitzen den otoitza Arkumearen biziaren liburuan izena emateko:**

Jauna, konturatzen naiz nire bideetatik ibili naizela. Batzuetan, ez nizun jaramonik egiten, ondo nembilela uste bainuen. Beste batzuetan, ez nuen bizi nahi zuk nahi zenuen bezala, nik nahi nuen bezala baizik. Horrela, bidetik desbideratu nintzen. Badakit nire bekatuak asko direla eta ez dudala ezer haiek ordaintzeko. Hau besterik esan dezaket, damutzen naiz.

Eskerrik asko Jesus bidaltzeagatik nire bekatuengatik hiltzeko Arkumea, sakrifizio perfektua, bezala. Sinesten dut nire bekatuengatik hil eta berpiztu zela. Une honetan bertan, onartzen dut bere bizia sakrifiziotzat eman zuela arkumea bezala. Eskerrik asko niri barkatu eta betiko bizia emateagatik.

Adeitasunez,  
Lehen galduta zegoen bat



### 3.Urratsa

# Jesus, Artzain Ona



Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

\_\_\_\_\_ Egia ote da Kristoren aldekoak direla esaten duten askok egunen batean huts egingo dizutela?

\_\_\_\_\_ Inork ez nau maite, ezta nitaz arduratzen ere.

\_\_\_\_\_ Kristok zainduko nau betiere.

*“Jendetza ikustean, errukitu egin zitzaion Jesus, nekatuak eta lur jota baitzeuden, artzainik gabeko ardiak bezala.”*

Mateo 9:36

## BA AL DAGO NITAZ ARDURATZEN DEN INOR? JOAN 10

Gutako zenbatek uste dugu gure bizitza gure kontroletik kanpo dagoela? Gutako asko sentitzen gara bakarrik, urduri, baztertuta edo gaizki tratatuta. Gainera, batzuetan, besteengandik, bereziki Jainkoarengandik, urrun sentitzen gara. Jesusek aipatu zituen “artzainik gabeko ardiak” bezalakoak gara.

1. Badaude maite gaituztela, gutaz arduratuko direla esaten duten pertsonak, baina, noizean behin ez dute haien hitza betetzen. Hori gertatzen denean, minduta, zaurituta sentitzen gara ustez maite gintuztenek huts egin digutelako. Inoiz etsita sentitu al zara hauetako batzuek huts egin dizutelako?

- Zure gurasoak     Zure ezkontidea edo bikotea     Lider erlijioso bat  
 Miresten zenuen norbait     Lagun, auzoko edo lankide bat     Sendi bat

Zer egin zizuten zu etsita uzteko? \_\_\_\_\_

2. Batzutan, bizi garen mundua gure kontrakoa da. Arriskuz beteta dago. Askok bizi dira trangez babestutako etxeetan, giltzaz itxitako ateen atzean gaizkileei dieten beldurragatik. Jesusek aipatzen ditu inguruan ditugun asmo txarreko horrelako pertsonak. Bilatu Joan 10ean erantzunak segidan aurkitzen diren galderei.

Joan 10:10ean, Jesusek hitz egiten du \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ artaldera doan lapurraz.

Ez lapurra bezala, Jesusek esan zuen \_\_\_\_\_ etorri zela.

3. Badaude gure lagunak direla sinetsarazi nahi diguten pertsonak, baina, benetan, onuraren bat eskuratzeko gutaz baliatu besterik ez dute egin nahi. Joan 10:1-13ko pasarteetan, Jesusek Artzain Ona alderatzen du lansari axola zaion morroiarekin. Artzaina ez denez gero, arriskuan aurkitzen denean, ihes egiten du ardiak ez

\_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_ baizik. Joan 10:13

4. Jesusek, bestalde, esan zuen \_\_\_\_\_ dela. Joan 10:11

Zer egiten du artzain onak? 11.tx. \_\_\_\_\_

Nola eman zuen bere bizia guregatik? \_\_\_\_\_

5. Zure ustez, zein da artzainaren lana? \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

## ARTZAINAREN AHOTSA

“Nire ardiek nire ahotsa entzuten dute eta ezagutzen ditut eta jarraitzen didate.”  
Joan 10:27

Behin, Sirian aurkitzen zen turista batek topo egin zuen hiru artzainekin. Ardiei begiratzen zien ura edaten ari ziren bitartean. Hiru artealdeak elkarrekin nahastuta zeuden. Denbora pixka bat pasata, artzainetako batek ozenki esan zuen, “Men-ah! Men-ah!” (arabieraz esan nahi du “Jarraitu niri”) eta muino batera igo zen. Bere ahotsa entzunda, bere ardiek besteen artetik atera eta jarraitu egin zioten. Beste batek gauza bera esan zuen eta bere ardiek jarraitu zioten.

Turistak galdetu zion gelditzen zen artzainari, “Zure arropa jantzi, zure makila hartu eta ardiei deitzen badiet, jarraituko al didate?” “Ba, saiatu hori egiten”, esan zion artzainak. Esan bezala egin zuen, baina ardiek ez zioten jaramonik egin ez baitzuten bere ahotsa ezagutzen. Turistak galdetu zion, “Esan nahi al didazu zuri bakarrik jarraituko dizutela?” “Ez”, esan zion artzainak, “gaixorik daudenean, deitzen dien edozeini jarraituko diote.”<sup>3</sup>

6. Gainera, artzain onak \_\_\_\_\_ bere ardiak. Joan 10:14 Inork ez ditu Berak baino hobeto ezagutzen gure beharrak eta bizi ditugun egoerak.



Ezagutzen dituzun pertsonetatik, nortzuk benetan arduratzen dira zutaz? \_\_\_\_\_

Ba al dago inor Jesus baino gehiago zutaz arduratzen denik? \_\_\_\_\_

Ba al dago Jesusek egin zuen sakrifizioaren antzekoa egin duenik? \_\_\_\_\_

## ARTALDERAKO SARRERA

Artzain ona izateaz gainera, Jesusek esan zuen, "Neu naiz atea." 9.tx. Garai hartan, artesia harriz egindako esparrua zen. Ez zuen aterik. Ba zuen irekidura bat eta horretatik sartzen eta ateratzen ziren ardiak. Gauetz, artzainak lo egiten zuen irekidura horretan bere ardiak babesteko. Hitez hitz, artzaina atea zen.



7. Joan 10:9an, Jesusek esan zuen, "Neu naiz atea; \_\_\_\_\_ izango da. "Neu naiz atea" esan zuenean, baieztatzen zuen bere bidez bakarrik sar zitekeela norbait Jainkoaren familian.

8. Gogoko izango al zenuke zutaz arduratuko litzatekeen artzaina? \_\_\_\_\_ Bibliak irakasten du badagoela zerurako sarrera bat bakarra, norbaitek bere ueste ona Jesu Kristorengan jarritz. Ez erlijioak, ez egintza onek ezin zaituzte salbatu; Jesusek baizik.

### Atetik sartuz

*Jauna, konturatzen naiz galdutako ardi bat bezala ibili naizela. Nekatuta nago zure babesetik urrun ibilitzeagatik. Sinesten dut nire alde hil zinela gurutzean. Une honetan gonbidatzen zaitut nire artzain ona izatera. Hemendik aurrera, biziko naiz zure babespean eta zure aginpidearen arabera. Fedez, jasotzen dut eskaintzen didazun betiko bizia.*



Hauetako esaldietatik, zeintzuek ondo deskribatzen zaituzte?

- Nire ueste ona Jesusengan jartzen besterik ez dut egiten salbatua izateko.
- Nire ueste ona Jesusengan, nire egintza onetan eta nire erlijioan jartzen dut salbatua izateko.
- Ziur nago Kristoren artaldekoa naizela.
- Ez nago ziur Kristoren artaldekoa naizenik.

Ziur ez bazaude, otoitz honek badauka zuri artzain ona ezagutzen laguntzea:

9. Kristok esan zuen, "Nire ardiek nire ahotsa entzuten dute...eta atzetik jarraitzen didate." Joan 10:27 Entzuten al duzu Jesusen ahotsa?  Maiz  Oso gutxi  Ia inoiz ez Nola entzun dezakegu Jesusen ahotsa gaur egun? \_\_\_\_\_
10. Jarraitzen al diozu Kristori?  Maiz  Oso gutxi  Ia inoiz ez  Ez dakit nola jarraitu hari Ba al dago Kristori jarraitzea eragozten dizunik? Zer izango litzateke? \_\_\_\_\_
11. Jesusek betiko bizia agintzen die Bereak direnei. 28.tx. Zure ueste ona Kristorengan jarri baduzu, Bere ardietako bat zara.



Jesus deika ari zaizu. Entzuten al duzu bere ahotsa?


Zenbateraino dago seguru zure etorkizuna? Joan 10:28 Zergatik? \_\_\_\_\_

Bakarrik edo triste sentitzen zarenean, utzi Jesusi zutaz arduratzen eta, horrela, ez duzu zure buruaz laguntzarik gabe arduratu beharrik izango.

"Utzi berari zeuen kezka guztiak, bera baita zuetaz arduratzen." 1.Pedro 5:7

## 4.Urratsa

# Bizirik dago!



Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

- \_\_\_\_\_ Hiltzean dena bukatzen denez gero, nahi dugun bezala bizi gaitezke.
- \_\_\_\_\_ Hil ondoren guztiak berpiztuko dira.
- \_\_\_\_\_ Baliteke heriotzari buruz pentsatzea beldurrik eta etsipenik gabe.

### BIZIRIK DAGO

- Jesus gurutziltzatu ondorengo igande goizean, bat-batean...zer gertatu zen hilobi inguruan zegoen lasaitasuna eteteko? Mateo 28:1-4 \_\_\_\_\_
- Zer esan zien aingeruak emakumeei? Mateo 28:5,6 \_\_\_\_\_  
Jesusen hil eta hirugarren egunean berpiztuko zela haiei esana zien arren, harrিতuta gelditu ziren. (Mateo 16:21)
- Berpiztu ez ezik, Eginak 1:9,10ean ikusten dugu \_\_\_\_\_ joan ere egin zela.  
Zerura igotzeaz gainera, zer agindu zuen? 11.tx. \_\_\_\_\_
- Jesusen piztuera munduaren historian gertaera bakarra da. Hain apartekoa da non askok ez baitute gertatu zenik sinetsi nahi. Erromatarrei 1:4ean, Paulok indar egiten du piztueraren garrantzian Jesus " \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ bidez \_\_\_\_\_ deklaratu izan" zela esaten duenean.

*Nolako garrantzia du guretzat Jesus hildakoen artetik piztu zela jakiteak? Ba al du inolako eraginik guregan? Ikus dezagun nola erantzuten dien Bibliak galdera horiei.*

- Zer gertatuko zatekeen, Kristo berpiztu ez balitz?  
1.Korintoarrei 15:12,13 \_\_\_\_\_  
1.Korintoarrei 15:17 \_\_\_\_\_

### HIL ONDOREN, ZEREKIN EGINGO DUGU TOPO?

- Askok ez dute uste guztiok berpiztuko garenik. 1.Korintoarrei 15:32an ikusten dugun bezala, haiek esango lukete: "Hilak pizten ez badira \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_ bihar \_\_\_\_\_.



"Hilak pizten ez badira, jan dezagun eta edan, bihar hil behar dugu eta."  
1.Korintoarrei 15:32

Askok uste dute norbait hiltzen denean, dena bukatzen dela. Haien ustez, bizitza honen ondoren, ez diote konturik Jainkoari eman behar izango. Haiek beraien erara bizi nahi dute ondorioak kontuan hartu gabe.

Joan 5:28,29an, zer dio Jesusen horri buruz? Izango ote da piztuerarik? \_\_\_\_\_

Kondaira baten arabera, ostrukak, arriskuan sentitzen denean, burua hanean gordetzen du, uste omen baitu horrela ez zaiola ezer gertatuko. Badakigu hori ez dela egia. Gauza bera gertatzen da piztuerarekin. Ez dela piztuerarik izango sinesteak ez du hildakoak berpiztuko direneko errealitatea aldatzen.

- Jesusek bere laguna Lazaro hila zela entzun zuenean, zer esan zion bere arreba Martari? Joan 11:25,26  
"Neu naiz \_\_\_\_\_ eta \_\_\_\_\_; niregan \_\_\_\_\_ duena, hilda ere, \_\_\_\_\_.  
Bizi eta niregan \_\_\_\_\_ duen oro, ez \_\_\_\_\_.



## ZER ESAN ZUTEN HILTZEAR ZEUDENEAN?

Batzuek heriotzari beldur diote. Beste batzuk, hala ere, lasai aurkitzen dira bere aurrean. Entzun hiltzeaz zeuden fededun batzuen hitzak.

*“Betikotasuna datorkit aintzazko itsasoa bezala.”<sup>4</sup>*

*“Banoa eskolatik ateratzean mutiko batek duen alaitasunaz.”<sup>5</sup>*

*“Eguzkia sartzen da, baina, nirea ateratzen. Ohe honen truke, koroa bat jasotzen dut. Agur.”<sup>6</sup>*

*“Ez egin negarrik niregatik, zuen burarengatik baizik, Jesu Kristo gure Jaunaren Aitarengana bainoa.”<sup>7</sup>*

## HAUSNARTZEKO

Efesoarrei 1:20,21ean, Paulok azaltzen du Jainkoaren indarrak Kristorengan jardun zuela hilengandik berpiztuz. Orain, Kristo \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_ eserita dago.  
20.tx.

Jainkoaren eskuinaldean eserita, Kristo gobernu edo aginte guztien gaineratik dago...mende honetan, baita datozen guztietan ere.

Hartu gogoan Kristo gobernu eta aginte guztien gaineratik dagoela jakiteak duen garrantzia.

Azkenean, galdetu zion, “Sinesten al duzu hau?” Gero, Lazaro hildakoengandik piztu zenean, askok sinetsi zuten Jesusengan, baina ez guztiak. Haien ustez, han gertatutakoak haien usadioak zalantzan jar zitezkeen. (Joan 11:45-48)

8. Irakurri Eginak 17:30-32. Pasarte horretan ikusten dugu Paulok Atenastarrei esan zuela Jainkoak guztiak \_\_\_\_\_ agintzen diela zeren Jainkoak \_\_\_\_\_ eguna ezarri baitu. 30,31.tx.

***Kristo Bera epailea izango da. Jainkoak haren aginpidea ezarri zuen hildakoengandik piztu zuenean. (31.tx.)***

32.tx. Hilan piztuerari buruz ari zela entzun zutenean, batzuk \_\_\_\_\_ eta beste batzuek esan zioten \_\_\_\_\_



Beti izango dira iseka egiten duten batzuk eta gehiago jakin nahi duten besteak. Dena dela, guztiok gure buruari galdetu behar diogu:

Sinesten al dut Jesus piztu zela?  Bai  Ez  Ez dakit

Sinesten al dut Jesusek betiko bizia ematen duela?

Bai  Ez  Ez dakit

Sinesten al dut hil ondoren piztuko naizela, ala betiko bizira ala kondenaziora?

Bai  Ez  Ez dakit

Ez da aski piztuera izango dela jakitea, sinetsi egin behar da. Joan 11:25,26an ikusi dugunez, sinesten dutenak ez dira betiko hilko.

9. 1.Korintoarrei 15:55ean, Paulok dio, “Non duk, Herio, heure garaipena?” Alde batetik, Jainkoak dio badagoela heriotza garaitzea. Bestaldetik, batzuek ukatzen dute. Nori sinetsiko diogu? \_\_\_\_\_

10. Jesusengan sinetsi dutenek badaukate beraien zain dagoen zerbait handia?

Zer da? 2.Korintoarrei 4:14 \_\_\_\_\_

Egunen batean, Jainkoaren presentzian egongo gara betiko, baita Berarengan sinetsi zuten beste guztiak ere. Beraz, 18.txatalean, Paulok dio ez ditugula gure begiak ipini behar \_\_\_\_\_, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_ baizik.

Zergatik? \_\_\_\_\_

***Jesu Kristo berpiztu zenez gero, ziur egon gaitezke, hil ondoren, hilobi bat baino gehiago gure zain egongo dela. Bera izan zen zerura igo zen lehenengoa, baina ez azkenekoa. Gure heriotza izango da imajina dezakegun baino azkoz hobea izango den zerbaiterako pasabidea.***

## Pentsarazteko galderak:

Nola egon gaitezke ziur betiko bizira piztuko garela eta ez, kondenaziora?

Gure lagun gehienek ez badute Kristorengan sinesten edo axolagabekeriaz entzuten badituzte Bere promesak, axola behar ote zaigu?



## 5.Urratsa

# Kristo, nire Abokatua

Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

- \_\_\_\_\_ Jainkoaren aurrean egingo den azken epaiketan gu defendatzeko abokatuaren beharra izango dugu.
- \_\_\_\_\_ Gure abokatu Jesusek bezero errudunak bakarrik defendatzen ditu.
- \_\_\_\_\_ Badira bitarteko asko Jainkoaren eta gizakien artean.

### Istorio interesgarri bat...

Neskatxa batek soinekorik onena jantzia zuen bisitari bereziak bere etxera zetozela jakinik. Bere ama bisitariari harrera ona emateko asmoz etxea atontzen lanpetuta zebilen. Horregatik, soinekoa jantzten utzi zion, baina ohartarazi zion: "Kontuz, ez bustitu soinekoa urtetan jolastuz egin ohi duzun bezala!"

Handik gutxira, hala ere, oharpenaz ahaztuta, uretan jolasten hasi zen. Horretan ari zela, norbait atea jotzen ari zela entzun zuen. Egongelara joaten hasi zenean, konturatu zen soinekoaren ertza bustirik zegoela.

"Aiene, amak zigortuko nau!" esan zion neskatxak bere buruari. "Zer egin behar dut?" Orduan, bururatu zitzaion nola konpondu arazoa. Goraize batzuk hartu eta soinekoari bustitua zitzaion zatia moztu zuen. Bere buruarekin pozik, esan zuen, "Ba, orain, ama ez da konturatuko soinekoa bustitu dudanik."

Bere bihurkeriaren arrastoak ezabatu zituela uste zuelarik, egongelarantz abiatu eta bisitariari agur egin zien." <sup>8</sup>

### Oroitzen al zara txikitan egin zenituen bihurkeriez?

Ezkerrean agertzen den istorio barregarria benetan gertatu zen. Ziur aski, posible izango balitz, nahiago genuke gure arazoak konpontzea neskatxak uste zuen bezain erraza izatea.

Pentsatu un batez eta erantzun segidan aurkitzen diren galderak:

- Bai  Ez Gordetzen al dituzu inork jakiterik nahi ez duzun sekretuak?
- Bai  Ez Noizean behin sentitzen al dituzu bihotzeko harra eta lotsa?
- Bai  Ez Sentitzen al duzu norbait zu saltzen ari dela iraganean egin zenituen gauzengatik?
- Bai  Ez Noizean behin zure bekatuagatik hain gaizki sentitzen al zara non ez baituzu uste erremediorik dagoenik?
- Bai  Ez Ba al dago konponbiderik salatzen zaituen kontzientziarako?

Gure hutsegiteek guregan sortzen dituzten errudun-sentimenduek lotsa sentiarazten digute eta askok uste dugu ez garela haiek konpontzeko gauza. Gure buruari galdetzen diogu: "Zer pentsatzen dute nitaz? Ba al dauka Jainkoak ni bezalako pertsonari barkatzea?"

*"Nire haurtxoak, zuei gauza hauek idazten dizkizuet bekatuak egin ez dezazuen. Eta norbaitek bekatu eginez gero, Abokatua dugu Aitarekin, Jesu Kristo, zuzena dena."* 1.Joan 2:1

- Inoiz bururatu al zaizu Jainkoaren aurrean zure burua defendatzeko abokatuaren beharra izango zenuela? \_\_\_\_\_  
Nolako egoeretan badu norbaitek abokatuaren beharra? \_\_\_\_\_
- Batzuek ez dute bekatua seriotasunez hartzen, honelako gauzak esaten baitituzte, "Jainkoak barkatuko dit." edo "Badira ni baino gaiztoagoak." Zer esaten dio Bibliak bere burua laguntzarik gabe zerura iristeko bezain ontzat jotzen duenari? Isaias 64:6 \_\_\_\_\_  
Ba al da inor hain gaiztoa non ezin baitu Jainkoaren barkamena jaso? Erromatarrei 5:8 \_\_\_\_\_

### Ba al zenekien Abokatua duzula? Irakurri 1.Joan 2:1,2 eta erantzun galdera hauek:

- Nortzuei daude zuzenduta hitz hauek? 1.tx. \_\_\_\_\_  
*Jainkoaren seme-alaba izateak esan nahi du norbaitek erabaki duela bere bekatuaz damutzea eta Jesu Kristo bere Salbaltzaile pertsonala izatera gonbidatzea. Jainkoa errealista da. Guk bekatu ez egitea nahi badu ere, badaki, noizean behin, bekatu egingo dugula.*
- Nolako baliabidea dugu huts egiten dugunean? 1.tx. \_\_\_\_\_  
A zer-nolako adorea ematen digu gure alde jarduten duen Abokatu bat dugula jakiteak!

*"denek bekatu egin baitute  
eta Jainkoaren aintzarik  
gabe aurkitzen dira."  
Erromatarrei 3:23*



## **NIRE ABOKATUAREKIN EGINDAKO KONTRATUA**

Jesu Kristo Jauna,

Zure laguntza behar dut nire burua defendatzeko. Nire kontrako salaketak larriak dira eta horietaz erruduna naiz. Ez dut nire jokabidea zuzenesteko defentsarik, ezta atzakiarik ere. Gaizki sentitzen naiz eta egin ditudan gaiztakeria guztiez damutzen naiz.

Sinesten dut niregatik, zure Aitaren legearen arabera nuen zorra ordaintzeko, zure odola isuri zenuela. Ulertzen dut nire epaia zure gain hartu zenuela eta zure heriotzak zigor osoa ordaindu zuela.

Hitzarmen honen bidez, nire abokatu izateko kontratatzen zaitut eta nire kontrako salaketa zuzenen aurrean ni defendatzeko eskatzen dizut. Jainkoaren eta nire arteko bitarteko bakarra bezala onartzen zaitut eta iraganean fidatu naizen edonori uko egiten diot.

Baliabiderik ez dudalako, ezin dizut zure zerbitzuengatik ordaindu. Ondo egin dezakedana ez da aski. Eskaintzen dizkizudan gauza bakarrak zuregan jartzen ditudan fedea eta uste ona dira. Zu zerbitzatzeko nire bitzta ematen dizut.

Zure zerbitzuen beharra izango dut nire bizitzan zehar, nire heriotzaren egun arte bekatuaren kontra borrokan jarraituko dudanez gero.

Adeitasunez,

\_\_\_\_\_

Bezeroaren sinadura

\_\_\_\_\_

Eguna

5. Batzuek ez dute konfiantza abokatuengan jartzen. Ba ote da Jesus Kristo ezberdina? 1.txatalaren arabera, bera da \_\_\_\_\_. Hartu gogoan zer esan nahi duen honek zure bizitzarako.
6. Nola dago gure auzi legala? Sendo ala ahul? \_\_\_\_\_  
*Kohelet 7:20an Salomonen hitz hauek aurkitzen dira, "Ziur aski ez dago lurrean on dagian eta bekatu egiten inoiz ez duen gizaki zuzenik."*
7. Errudunak garenez gero, ba ote dago zigorrari ihes egiterik? Nola dauka Jesusek gu bezalako bezero errudunak defendatzea? 1.Joan 2:2aren arabera, bera da \_\_\_\_\_ gure bekatuengatik. Bere odolak Jainkoaren sumina baretzen du gure salbamenaren prezioa ordainduz. Kristoren sakrifizioak Jainkoa ase zuen. Hori dela eta, ez du besterik eskatzen. (adibidez: egintza onak, penitentzia, etabar)

### **Gure Abokatuari buruzko zenbait egia:**

- Zuzena da. Ez du irabazten amarruak edo egia desitxuratzen duten maniobra legalak erabiliz. Inork ezin du erosi. Ez du gezurrik esaten.
- Kristok bezero errudunak defendatzen ditu. Bera gabe, bere bezeroek ez lukete denfentsarik izango, ezta garaitzeko itxaropenik ere.
- Kristo Jainkoaren aurrera doa gu defendatzera besterik ez egitera. Ez digu testigantza egiteko eskatzen, alferrik izango litzatekeelako. Ez dugu aitzakiarik.
- Bere aurkaria deabrua da. Gure kontra gehien erabiltzen duen taktika gu salatzea da. (Apok. 12:10-12) Jesusek deabruaren salaketak gezurtatzen ditu gu bere odolaz defendatuz.
- Ez du gure errugabetasuna aldarrikatzen, baizik eta gure kulpaa aitortzen du. Argudiatzen du bere heriotzak merezi genuen zigorra ordaindu eta bekatuen zorra ezeztatuta utzi zuela.

8. 1.Timoteori 2:5ean, Paulok dio bat bakarra dela Jainkoaren eta gizakien arteko \_\_\_\_\_: gizon bat, \_\_\_\_\_. Nolako da bitarteko bat? Bi pertsonaren artean, bien interesak kontuan hartuz, esku hartzen duen pertsona bat da. Haien artean arazoak dituztela, haiek elkarrekin adiskidetzen saiatzen da.
9. 1.Timoteori 2:5aren arabera, zenbat bitarteko daude Jainkoaren eta gizakien artean? \_\_\_\_\_ Askok ez dute uste Jesus Jainkoaren eta gizakien arteko bitarteko bakarra denik. Besteen bila dabilta Jainkoaren aurrean haien alde jardun dezaten.  
Zeintzuk dira Jainkoaren aurrean haien alde jardun dezaten jendea bila dabilen bitarteko batzuk? \_\_\_\_\_



Egia esateko, ez gara Jainkoaren aurrean gure burua defendatzeko gauza. Gainera, ez elizak, ez santu batek, ez erlijioso batek ezin gaitu salbatu, Jesu Kristok beste inork ez.

Hartu al duzu Jesus zure abokatutzat ala fidatzen al zara zure buruaz edo beste norbaitez?

"Ez", erantzun baduzu, irakurri eskerrean dagoen zutabearen agertzen den **"Nire Abokatuarekin egindako kontratua"** eta, horrekin adoz bazaude, sinatu.



## Nire Abokatua

Idazle ezezaguna

“Bizitza on bat” bizi ondoren, lurrean emango nuen denbora amaierara iritsi zen. Gogora etorri zitzaidan lehenengo gauza hau izan zen: auzi-areto bateko itxarongelan eserita nengoen. Ateak ireki ondoren, sartu eta salatuaren aulkian esertzeko agindu zidaten. Ingurura begiratzen hasi nintzenean, fiskala ikusi nuen. Inoiz ikusia nuen pertsonarik ezatseginena zen. Niri begirada dongea eman ondoren, marmaratu egin zuen. Aulkian esertzean, ezkerretara begiratu nuen eta hor zegoen nire abokatua. Gizon atsegin eta onbera zela neritzon eta uste nuen nonbait ezagutua nuela.

Bapatean, auzi-aretoko aurreko atea ireki zuten eta hor agertu zen epailea, tunika beltzez jantzita. Bere itxurak hainbeste hunkitu ninduen non ezin bainituen nire begiak berarengandik kendu. Eseri zenean, esan zuen, “Has gaitzen.” Fiskalak zutitu eta esan zuen, “Satanas izena dut eta hemen nago erakusteko zergatik merezi duen salatuak infernura joatea.” Hortik aurrera, esanak nituen gezur guztiak, lapurtuak nituen gauzak eta jende asko engainatu eta iruzur egina niola kontatu zituen. Iraganeko nire bizitzan eginak nituen gaiztakeria guztiak adierazi zituen.

Denbora pasa ahala, gero eta okerrago sentitzen nintzen. Hain lotsa handia sentitzen nuen non ezin bainituen begiak altxatu, ezta nire abokatuari begiratzeko ere. Zeharo ahaztuta nituen bekatuak aipatu zituen deabruak. Gogaituta sentitzen nintzen, are gehiago nire abokatuak ni defendatzeko ezer esaten ez zuela ikusi nuenean.

Banekien gauza haiek eginak nituela, baina gauza on asko ere eginak nituen. Ez al zituzketen gauza onek gauza txarrak ezeztatuko? Salatzailak bere hitzaldia bukatu zuen hau amorru handiz esanez, “Gizon honek infernura joatea merezi du. Bere kontra aurkeztu ditudan salaketa guztiez erruduna da eta ez dago kontrakoa frogatzeko gai den gizakiarik.”

Hitz egitea egokitu zitzaionean, nire abokutuak epaimahaira gerturatzeko baimena eskatu zuen.


Nahiz eta Satanasek protestak egin, epaileak bere eskaera onartu zuen. Epaimahairantz abiatu zenean, lehenengo aldiz ikusi nuen bere dotoretasun eta handitasun osoa. Zegoeneko gogoratu nintzen zergatik uste nuen ezagutua nuela. Ordezkatzen ninduen Jesus, nire Jaun eta Salbatzailea, zen. Epaimahaiaren aurrean gelditu eta epaileari emeki esan zion, “Kaixo, aita.” Hori esan ondoren, epaitegian zeundenei zuzendu zien bere hitzaldia. “Satanasek arrazoia du gizon honek bekatu egin duela esaten duenean. Ez dugu hori ukatuko. Nire bezeroaren kontra aurkeztu dituen salaketak onartzen ditugu. Are gehiago, egia da gizon honek heriotza zigorra jasotzea merezi duela.”

Segidan, arnasa sakonki hartu, bere Aitarenganantz biratu eta eskuak luzatuta esan zuen, “Hori guztia egia da, baina gurutzean nire bizia eman nuen pertsona honek betiko bizia izan zezan. Bere Salbatzaile bezala onartu ninduen; beraz, nirea da.” Gainera, esan zuen, “Bere izena Biziaren Liburuan idatzita dago eta inork ezin du nire eskutik kendu. Satanasek oraindik ez du ulertzen gizon honek ez duela zigorrak jasoko, errukia baizik.” Berrito eseri aurretik, bere Aitari begiratu eta esan zion, “Ez dago gehiago egin beharrik. Neuk dena egin dut.”

Epaileak bere esku ahaltzua altxatu eta bere mailua indarrez jaitsiarazi zuen hau esanez, “Gizon hau libre dago. Zigorra oso-osorik ordainduta dago. Bere aurkako auzia bertan behera uzten dut.”

Auzi-aretotik nire abokatuarekin ateratzen ari nintzela, Satanasi hau oihuka esaten entzun nion, “Ez dut etsiko. Hurrengo auzia irabaziko dut.” Jesusi galdetu nion ea inoiz auzirik galdua zuen. Maitasunez begiratu eta esan zidan, “Nik haiek defendatzeko eske niregana jo duten guztiek zuk jaso duzun epaia bera jaso dute: ‘Zigorra oso-osorik ordainduta dago.’”

**ZIGORRA OSO-OSORIK  
ORDAINDUTA DAGO.  
BERE AURKAKO AUZIA  
BERTAN BEHERA UZTEN DUT.**





## Nire Babeslekua


Kolono batzuk Amerikako mendebalde zaharreko lautadak zeharkatzen ari ziren landatzeko lurren bila. Idiek tiratzen zituzten oihalez estalitako gurdietan bidaia egiten zuten eta poliki-poliki egiten zuten aurrera. Egun batean, izu-ikaraz urrun ikusi zuten zerumuga betetzeraino alde guztietara zabaltzen ari zen ke-hodei bat. Argi zegoen mendebaldetik sute bat haien aldera azkar hurbiltzen ari zela lautadako larre-belar ihartua kiskaliz.

Gogoratu ziren aurreko egunean igaro zuten ibaiatz, baina bazekiten ezin zirela hara itzuli sugarrek haiek atzeman baino lehen. Gehienak beldurrez jota zer egin ez zekitela zeuden bitartean, haietako bati konponbide bat bururatu zitzaion. Haien atzean zegoen belarrari su emateko esan zien. Esparru handia erre zenean, guztiak erretako lekuan jarri ziren.

Sutea haien aldera azkar hurbiltzen ari zela, neskatxa batek beldurrez esan zion gizonari, "Ziur al zaude ez garela hilko suak irentsita?" Hark erantzun zion, "Ene alaba, hemen, sugarrek ezin gaituzte atzeman zeren suak igaro duen lekuan zutik baikaude. Arriskutik kanpo gaude." Horrela gertatu zen.

Historia horrek erakusten digu nolako segurtasuna aurki dezakegun Kristorengan! Jainkoaren auziko sua bere gainetik igaro zen eta, horrela, gure babesleku bihurtu da. Seguru gaude betirako sua igaro den babeslekuan zutik baikaude.

*Goitik bere gainera erori zen mendekua,  
Leizera hondoratuko gintuzkeena.  
Guregatik sufritu zuen,  
eta, horrela, gure babesleku bihurtu zen.* <sup>10</sup>



"Hara, hodei artean dator!"

## Badator Nire Erregea

Eskuinean dauden pasarteak irakurrita, gauza hauek ikas ditzakegu Kristoren bigarren etorrerari buruz:

- Guztiek hura etortzen ikusiko dute. Orain ikusezina dena agerian egongo da guztien aurrean.
- Lur osoan eta zeruetan erregeen Erregea dela onartuko dute.
- Bere erreinua ezarri aurretik, suminez epaituko ditu nazioak. Garrasi egingo dute saminki alde okerrekoak direla konturatzen direnean, baina beranduegi izango da.
- Bere erreinuak inoiz ez du bukaerarik izango! Berak munduan egonkortasuna ezarriko du jendeak gaur egun esperimentatzen dituen ezegonkortasuna eta segurtasunik eza kenduta.

### Gogoeta egin dezagun

1. Apokalipsia-ko pasarte hauek irakurri ondoren, nola sentitzen zara?
  - Beldur nago, ez baitakit zer gertatuko zaidan epai-egunean.
  - Seguru sentitzen naiz.
  - Nire burua on egiten jarraitzea animatzen dut, baita besteek iseka egiten didatenean ere.
2. Ba al duzu prest zeruan sartzeko behar duzun pasaporteaz?
3. Errege handia etortzen denean, garrasi saminki egingo dutenen ala poztuko direnen artean egongo al zara?

*"Horregatik ere, Jainkoak gorenera goratu zuen eta izen oroaren gainetik dagoen izena eman zion, Jesusen izena aldarrikatzean, belaun oro makur dadin, zerukoena eta lurkoena eta lur azpikoena, eta mihi orok aitoren dezan Jesu Kristo Jauna dela, Jainko Aitaren aintzarako."*  
Filipoarrei 2:9-11

*"Hona hemen, badator hodeien artean eta begi orok bera ikusiko du, baita bera zulatu zutenek ere; eta lurko leinu guztiek dolu egingo dute berarengatik. Bai, amen."*  
Apokalipsia 1:7

*"Munduko erreinua gure Jaunaren eta bere Kristoren erreinua egin da eta menderen mendetan erreinatuko du."*  
Apokalipsia 11:15

*"Eta bere ahotik ezpata zorrotza ateratzen da harekin nazioak jo ditzan eta berak gobernatuko ditu burdinazko makilaz eta berak Jainko Ahalguztidunaren haserre-suminaren dolarea zapaltzen du eta izen bat badu idatzita bere soingainekoan eta bere izterean: ERREGEEN ERREGEA ETA JAUNEN JAUNA."*  
Apokalipsia 19:15,16



## 6. Urratsa

# Kristo, Erregea

Idatzi Egia (E) ala Gezurra (G)

- \_\_\_\_\_ Egunen batean, Kristok erreinatu egingo du eta munduak eperimentatu nahi duen bakea ekarriko.
- \_\_\_\_\_ Kristo bere erreinua Lurrean ezartzera etortzen denean, askok dolu egingo dute.
- \_\_\_\_\_ Mundua galduta dago eta bizi garen hondamena besterik ezin da itxaron.

*“Zeren haur bat jaio baitzaigu, seme bat eman zaigu eta gobernua bere sorbaldan gainean izango da eta izen hau emango zaio: Aholkulari Miresgarria, Jainko Ahaltsua, Betiko Aita, Bake-Printzea. Bere gobernuaren gehitzeak eta bakeak ez dute mugarik izango Daviden tronuan eta bere erreinuan...” Isaias 9:5,6*

### ETORTZEKO DEN ERREGEA

Kristo familia apalean jaio eta, hasieran, arotza zen arren, Isaiasek bere jaiotza eta bizitzari buruz profetizatu zuen. Egunen batean, artzainek eta ekialdeko jakintsuek gurtuko zuten ume txiki honek Jainkoaren erreinua gobernatuko eta “Bake-Printzea” titulua lortuko zuen. (Isaias 9:5,6) Ikasgai hau aztertzean, Bibliak Jesu Kristori buruz, etortzekoa den Erregeari buruz, esaten duena ikusiko dugu.

1. Zer esan zion aingeruak Mariari bere seme Jesusen etorkizunari buruz? Lukas 1:31-33

---

---

“Daviden tronua” apaitzeak erreferentzia egiten die Itun Zaharreko profetia batzuei: Jesu Kristok, David erregearen ondorengo batek, betiko erreinatuko zuela Israelen gain.

Ebanjelioetan ikusten dugu, nahiz eta Jesusek bere burua Jainkoak Israeli agindutako Mesias bezala aurkeztu, judek ukatu eta gurutziltzatu egin zutela. Horrek ez du esan nahi berari buruz egindako profetziak beteko ez direnik, baizik eta pixka bat gehiago itxaron behar izango dugula.

2. Zer dio Paulok Jesusi buruz Filipinoarrei 2:7,8ean? \_\_\_\_\_

Jesusek bere burua apaldu zuen gizon eginez eta gurutzean hilez. Istoria han bukatzen al da ala ba al dago gehiagorik? Jarrai dezagun irakurtzen.

3. Nahiz eta iraganean ukatua izan, nolako etorkizuna izango du? Filipinoarrei 2:9-11 \_\_\_\_\_

4. Ba al daukagu, lurrean, belaun oro Kristoren aurrean makurtu dela esaterik? \_\_\_\_\_

Izan ere, gaur egun, nolako egoeratan aurkitzen da mundua? \_\_\_\_\_

Kristoren eta bere legeen kontra matxinatzen den munduan bizi gara. Askok zeharo ukatzen dute Jesus. Besteek, aldiz, haien burua Jesusen jarraitzailetzat jotzen dute, baina haien bizimoduak beste errealitate bat islatzen du.


### JAINKOAREN ERREINUA

5. Nahiz eta Jesusek “Jainkoaren erreinuaz” asko esan, ez dugu erreinu ikusgaririk ikusten. Gaur egun, Kristok berarengan haien uste ona jartzen dutenen bihotzetan erreinatzen du. Zein da norbaitek bere uste ona Kristorengan jarri duela erakusten duen froga?

---

---

Ezin dugu esan Kristo gure erregea denik berak esaten duena egiten ez badugu. Errege bati obeditu egin behar diote.



6. Zerekin konparatzen da Jainkoaren erreinua Mateo 13:31,32an? \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_ antzekoa da. Hazirik txikiena izanda ere, hazten denean, barazki guztiak baino handiago egiten da. Norbaitek, bere uste ona Kristoregan jartzen duenean, zerbait handian hartzen du parte. Orain, talde irabazlekoa da. Gaur egun, askorentzat, Jesusen jarraitzailea izatea garrantzi gutxikoa da haien lagun oniritzia jasotzeko eta haien ondasunek ematen dieten ongizateaz gozatzeko axola handiagoa dietenez gero. Lurrean denbora amaitu ondoren, ordea, jabetuko dira betiko diren ikusi ezinezko gauzek bazutela garrantzirik handiena, ez gauza ikusgaiek. Orduan, hala ere, beranduegi izango da.

**NIRE ERREGIARI JARRAITUZ**



Jainkoaren erreinua gobernatzen duten baloreak jakiteko, irakurri Mendiko Sermoia. (Mateo 5-7)

7. Mateo 13:45,46an, Jesusek Jainkoaren erreinua konparatzen du \_\_\_\_\_ bila dabilen merkatari batekin. Aurkitu zuenean, joan, \_\_\_\_\_ saldu eta \_\_\_\_\_.  
 Zer esaten dizu parabola honek Kristoren erreinukoa izatearen baloreari buruz? \_\_\_\_\_

8. Zer gertatu behar da norbaiten bizitzan Jainkoaren erreinuan sartzeko? (Joan 3:3) \_\_\_\_\_  
 Jaiotza espirituala gertatzen da norbaitek Kristo fedez onartzen duenean bere Jauna eta Salbatzaileztat. Horrela, Jainkoaren seme-alaba bihurtzen da.

9. Mateo 6:33an, Jesusek bere dizipuluei agintzen die Jainkoaren erreinua eta bere zuzentasuna lehendabizi bilatzeko. Norbait Kristoren erreinuko hiritarra bada, txatal honek dioenaren arabera, zeintzuk dira bere betebeharrak?

Zein erreinutakoa naiz?



Ba ote dut zerura joateko pasaportea?

Lehentasunik handiena Jainkoaren erreinua bilatzea da. Horrek esan nahi du nire burua Kristoren menpe jartzen dudala. Nire bizitzan lehenengoa izan behar du, beste edozein gauzaren gainetik. Nork gobernatzen du nire bizitza?

**Hori guztia kontuan hartuta, bakoitzak bere buruari galdetu behar dio:**

Jainkoaren erreinukoa, zeruko hiritarra, al naiz?  Bai  Ez  Ez dakit

Zure erantzuna "ez" bada, zein erreinutakoa zara? \_\_\_\_\_

Jainkoaren erreinuko hiritar fidel bezala bizitzen ari al naiz?  Bai  Ez  Zaila da niretzat.

Nork gobernatzen du nire bizitza?  Kristok  Neuk, baina nire irriek ere

Erregearekin harreman estuan bizi nahi ba duzu, hausnartu behean agertzen den pasarteari buruz.

**NIRE ERREGIAREKIN HIZKETAN**

Oi Jesus, ene Errege: Onartzen dut zu zarela Sortzailea eta, sorkuntza guztiaren gainetik, Gorena. Zure ahalmenaren eta handitasunaren aurrean apaltzen naiz. Nire bizitzako tronua hartzerantz gonbidatzen zaitut. Kontrolatu nire gogoetak zuk bezala pentsatzen ikas dezadan, baina nire oinak ere, zure urratsei jarrai diezaieten.

Erreinatzerantz etortzen zarenean, zure aintza aldarrikatu nahi dut. Nahi dut zuk, bai niregan, baina mundu osoan ere, gobernatzea. Oi betiko Errege, zure aurrean belaun oro makurtuko den egunaren zain nago.

Nazioak nahaskerian eta bidegabekeria bizi dira. Haien biztanleak ez dira zutaz fidatzen eta iseka egiten dizute.



Uste dute garrantzitsuak eta zuhurrak direla, unibertsoa haien inguruan biratuko balitz bezala. Lehen, haien antzekoa nintzen, baina, orain konturatzen naiz, zure aldean, oso txikia naizela.

Munduak presionatuta sentitzen naiz, bere ohituren arabera moldatu nahi nauela. Mesedez, lagun iezadazu beste errege bati jarraitzeko edo nire burua nire bizitzaren erregetzat jotzeko tentazioari aurre egiten. Zu zara nire itxaropena, orain eta beti.

Zure zerbitzari apala,


\_\_\_\_\_  
 (Sindadura)

**NOLAKOA IZANGO DA HAREN ETORRERA? Ikusi "Badator Nire Erregea!" 17. orrialdean.**

## ORAIN, ZER EGIN BEHAR DUZU?

Zure uste ona Kristorengan zure Jauna eta Salbatzaile bezala jarri eta ikasketa hau irakasle batekin egin baduzu, zure irakasleak orain zer egin behar duzunari buruzko zenbait aholku emango dizkizu. Irakaslerik izan ez baduzu, aintzaketat hartu aholku hauek:

“Beraz, norbait Kristorengan badago, sorkari berria da; antzinako gauzak igaro ziren; hona hemen, gauza berriak etorri dira.” (2.Korintioarrei 5:17)



Berriro jaio zara. Zure bekatuak barkatuak dira. Orain, sorkari berria zara. Jainkoa zure bizitza antzaldatzen hasi berria da. Fedez bizi zaitez, zure burua Jainkoaren eskuetan jarritz eta Espiritu Santuari zure bizitza antzaldatzen utziz, eta ikusiko duzu nolako aldeketak egingo dituen Jainkoak zure bizitzan.

Kristorengan jaio berria zarenez, harreman berri eta berezia duzu Jainkoarekin. Bera da zure Aita eta zu zara Bere seme-alabetako bat. Berak nahi du zu harreman horretan haztea. Hori zure bizitzan gertatuko da egunero Berarekin ibiltzen zarenez. Nola ibil zaitezke Jainkoarekin? Jaunak Berak azaltzen digu nola ibili Berarekin Bere hitzean:

1. Egutero eta egunean zehar hitz egin Jainkoarekin, hots, otoitz egin. Nahiz pozik nahiz triste egon, konta iezaiozu nola sentitzen zaren. Gainera, goretsi hura, eman eskerrak, aitortu zure bekatuak eta eskatu haren laguntza.
2. Irakurri Biblia egutero. (1.Pedro 2:1-3) Joanen ebanjelioa hasteko leku ona da. Itun Berrian aurkitzen da. Irakurri aurretik, otoitz egin Jainkoari hau esanez, “Ireki nire begiak zure legetik gauza zoragarriak ikus ditzadan”. (Salmo 119:18) Irakurri Biblia astiro, irakurtzen ari zaren pasartearen esannahiaz hausnartuz. Behar bada, irakurri kapitulu bera behin eta berriro ondo ulertzeko asmoz hurrengo pasartera pasatu baino lehen. Batez ere, gogoan izan, irakurtzeaz gain, fededunak Jainkoaren Hitzari obeditu egin behar dio. (Santiago 1:22-25)
3. Bilatu eta joan Jainkoaren Hitzean sinesten eta predikatzen duen eliza batera. (Hebertarrei 10:24,25) Fededunak dira zure anai-arrebak Kristorengan, zure familia berria. Galdetu artzainari nola har dezakezun parte elizaren bizitzan.
4. Hitz egin besteekin Kristori buruz. Konta iezaiezu zer egin duen Kristok zure bizitzan.
5. Aldendu lehen bizi zinen bizimodu biziotsutik. (1.Pedro 2:11,12; 4:1-3) Tentatuta sentitzen zarenean, erabili Jainkoak ematen dizun indarra tentazioari uko egiteko eta, behar bada, zauden girotik alde egiteko. (Esaera Zaharrak 4:14-19; 1.Korintioarrei 10:13,14; 1.Timoteori 2:22; Santiago 1:13-17; 1.Joan 5:21) Bekatu egiten duzunean, zer egin duzun konturatzen zaren unean bertan, aitortu Jaunari. (1.Joan 1:9)
6. Une oro ibili Kristorekin Bere hitzari obedituz eta Espiritu Santuari bizitzeko behar duzun indarra zuri ematen utziz. (Joan 15:1-11; Efesoarrei 5:18; Kolosarrei 3:16; 1.Joan 2:1-6; 24-29; 4:12-16)
7. Hasi “Bizi Berria Jesusengan” saileko ikasketak egiten. Badaude beste hiru liburuki. Badaukazu haiek webgune hauetatik jaitea:  
[www.nuevavidaencristo.org](http://www.nuevavidaencristo.org),  
[www.bideaelkartea.org](http://www.bideaelkartea.org).



## IKASKETETAN AGERTZEN DIREN PASARTE BIBLIKOAK

### 1.urratsa

Joan 1:1-4

- 1 Hasieran bazen Hitza eta Hitza Jainkoarekin zegoen eta Hitza Jainko zen.
- 2 Hau Jainkoarekin zegoen hasieran.
- 3 Gauza guztiak beronen bidez egin ziren eta egindakotik ezer ez zen berau gabe egin.
- 4 Harengan zegoen bizia, eta bizia gizakien argia zen;

Joan 1:11

Beretarregana etorri zen, baina beretarrek ez zuten onartu.

Joan 14:6

Jesusek esan zion: "Neu naiz bidea eta egia eta bizia; inor ez dator Aitarengana, nire bidez izan ezik."

Joan 3:3

Jesusek erantzun eta esan zion, "Benetan diotsut, norbait berriro jaiotzen ez bada, ezin du Jainkoaren erreinua ikusi."

Efesoarrei 2:1-5

- 1 Eta zuek zuen gaitzegite eta bekatuetan hilik zeundetelarik,
- 2 lehen, haietan ibili zineten mundu honetako bidearen arabera, aireko agintearen, orain desobedientziatzko semeengan diharduen espirituaren printzearen arabera;
- 3 haien artean, lehen, gu guztiok ere bizi ginen gure haragiaren grinetan, haragiaren eta gogoeten irrikak burutuz, eta, izatez, suminezko seme-alabak ginen besteak ere baziren bezala;
- 4 baina Jainkoak, errukian aberatsa izanik, maite izan gintuen bere maitasun handiagatik,
- 5 gu gaitzegitetan hilik geundela ere, Kristorekin batera biziari egin gintuen - graziaz salbatuak izan zarete -

Joan 3:16-18

- 16 Zeren Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere sortutako Seme bakarra eman baitzuen, harengan sinesten duen inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.
- 17 Zeren Jainkoak ez baitzuen bere Semea mundura bidali mundua kondenatzeko, baizik eta bere bidez salbatua izan zedin.
- 18 Harengan sinesten duena ez da kondenatua, baina sinesten ez duena jadanik kondenatua izan da, ez baitu sinetsi Jainkoaren sortutako Seme bakarraren izenean.

Joan 1:12

Baina onartu zuten guztiei, bere izenean sinesten dutenei, Jainkoaren seme-alaba egiteko eskubidea eman zien;

### 2.urratsa

Joan 1:29

Biharamunean, berak Jesus ikusi zuen berarengana etortzen eta esan zuen: "Hona hemen munduko bekatua kentzen duen Jainkoaren arkumea.

1.Pedro 1:18,19

- 18 jakinik zuen arbasoengandik eskualdatutako baliogabeko bizimodutik berrerosiak izan zinetela ez gauza ustelkorrez, zilarrez edo urrez,
- 19 baizik eta, ardi akasgabeko eta garbiarenaz bezala, Kristoren balio handiko odolaz.

Isaias 53:3-7

- 3 Gizakiek mesprezatua eta ukatua izan zen, nahigabeetako gizona eta atsekabea ezagutzen zuena; eta besteei aurpegia berarengandik ezkutatzera eragiten diena bezala mesprezatua izan zen eta ez genuen aintzakotzat hartu.
- 4 Benetan berak gure atsekabeak jasan eta gure nahigabeak eraman zituen; guk bera, hala ere, jotakotzat, Jainkoak kolpatutzat hartu genuen eta atsekabetutzat.
- 5 Baina bera zauritua izan zen gure hutsegiteengatik, zapaldua gure gaiztakeriengatik; gure ongizaterako zigorra bere gainera erori zen eta bere zigortzeaz guri sendaketa etorri zaigu.
- 6 Gu guztiok ardiak bezala desbideratu gara, nor bere bidera biratu gara eta Jaunak gu guztion gaiztakeria bere gainera erorarazi du.
- 7 Bera zanpatua eta atsekabetua izan zen, baina ez zuen bere ahoa ireki; hiltegiara eramandako arkumea eta bere moztailen aurrean dagoen ardia bezala isilik zegoen eta ez zuen bere ahoa ireki

Apokalipsia 12:10,11

- 10 Eta zeruan ahots handia entzun nuen esaten, "Dagoeneko, etorri da gure Jainkoaren salbamena eta indarra eta erreinua eta bere Kristoren aginpidea, zeren eta gure anaien salatzailea, haiek gure Jainkoaren aurrean gau eta egun salatzen dituen, behera jaurtia izan baita.
- 11 Eta haiek hura garaitu zuten arkumearen odolaren bidez eta haien testigantza hitzaren bidez eta ez zuten haien bizia heriotzaraino maitatu.

Apokalipsia 21:27

Eta inoiz ez da bertan sartuko ezer kutsaturik ezta higuinarrikeria eta gezur egiten duenik ere, arkumearen biziaren liburuan idatzita daudenak izan ezik.

Apokalipsia 20:15

Eta inor biziaren liburuan idatzita aurkitua izan ez bazen, suzko aintzirara jaurtia izan zen.

### 3.urratsa

Joan 10:1-14

- 1 Bene-benetan diotsuet, "Artegian atetik sartzen ez, baizik eta beste tokitik igotzen dena, hori da lapurra eta ebaslea;
- 2 atetik sartzen dena, berriz, ardien artzaina da.
- 3 Atzezainak honi irekitzen dio atea eta ardiek bere ahotsa entzuten dute eta bere ardiei izenez deitzen die eta ateratzen ditu.
- 4 Bere guztiak kanpora eramaten dituenean, haien aurretik doa eta ardiek berari jarraitzen diote bere ahotsa ezagutzen dutelako.;
- 5 baina ezezagunari ez diote jarraituko baizik eta berarengandik ihes egingo dute, ezezegunen ahotsa ezagutzen ez dutelako."
- 6 Jesusek parabola hau haiei kontatu zien, baina ez zituzten ulertu haiei esaten ari zitzaien gauzak.
- 7 Orduan Jesusek berrito esan zuen, "Bene-benetan diotsuet, 'Neu naiz ardien atea.'
- 8 Ni baino lehen etorri ziren guztiak lapurrak eta ebasleak dira, baina ardiek ez zieten entzun.
- 9 Neu naiz atea. Inor nire bidez sartuz gero, salbatua izango da eta sartu eta aterako da eta larrea aurkituko du.
- 10 Lapurra ez da etortzen lapurtu, hil eta suntsitzera baizik; neu etorri naiz bizia izan dezaten, ugari izan ere.
- 11 Neu naiz artzain ona. Artzain onak bere bizia ematen du ardien alde.
- 12 Alokairukoak, artzaina ez denak, ardiak bereak ez dituenak, otsoa etortzen ikusi eta ardiak bertan behera utzi eta ihes egiten du - eta otsoak haiek harrapatu eta sakabanatzen ditu -
- 13 Ihes egiten du alokairukoa izan eta ardiek axolarik ez diotelako.
- 14 Neu naiz artzain ona eta nireak ezagutzen ditut eta nireek ezagutzen naute,

Joan 10:27-29

- 27 Nire ardiek nire ahotsa entzuten dute eta ezagutzen ditut eta jarraitzen didate,
- 28 eta betiko bizia ematen diet eta inoiz ez dira galduko eta inork ez ditu nire eskutik kenduko.
- 29 Eman dizkidan nire Aita guztiak baino handiagoa da eta inor ez da gauza Aitaren eskutik kentzeko.

## 4.urratsa

Eginak 1:9-11

- 9 Eta gauza hauek esanik, haiek begira zeudelarik, jasoia izan zen eta hodei batek hura haien bistatik hartu zuen.
- 10 Eta, hura alde egiten ari zelarik, zerurantz adi begira zeuden bitartean, hona hemen zuriz jantzitako bi gizon haien ondoan zutitu
- 11 eta esan zuten: "Galileako gizonok, zergatik zaudete zerurantz begira; Jesus hau, zuengandik zerura eramana izan zena, bera zerura joaten ikusi duzuen bezalaxe itzuliko da.

Erromatarrei 1:4

indarrez eta santutasunaren Espirituaren arabera hildakoen artetik berpiztearen bidez Jainkoaren Semea deklaratu izan zena,

1.Korintoarrei 15:12,13

- 12 Eta Kristo predikatzen bada, hots, hildakoengandik berpiztu dela, nola esaten dute zuetako batzuek ez dagoela hildakoen berpizterik?
- 13 Baina ez badago hildakoen berpizterik, Kristo ere ez da berpiztu;

1.Korintoarrei 15:17

Eta Kristo berpiztu ez bada, zuen fedea baliogabea da, oraindik zuen bekatuetan zaudete,

1.Korintoarrei 15:32

Efeson giza erara basapiztien kontra borrokatu banintzen, nolatan balio dit? Hildakoak berpizten ez badira, "Jan eta edan dezagun, bihar hilko gara eta."

Joan 5:28,29

- 28 Ez harritu honegatik, hilobietan dauden guztiak bere ahotsa entzungo duten ordua datorrelako,
- 29 eta gauza onak egin zituztenak bizi-piztuerara aterako dira eta gauza txarrak egin zituztenak, auzi-piztuerara.

Joan 11:25,26

- 25 Jesusek esan zion, "Neu naiz piztuerara eta bizia; niregan sinesten duena, hitzen bada ere, biziko da,
- 26 eta bizi den eta niregan sinesten duen oro inoiz ez da hilko. Sinesten al duzu hau?"

Eginak 17:30-32

- 30 Horrenbestez, Jainkoak, ezjakintasunezko denboren gainetik pasata, orain, gizakiei agintzen die guztiak alde guztietan damu daitezela,
- 31 zeren ezarri baitu mundua zuzentasunez epaituko duen eguna, izendatu duen gizonaren bidez, guztiei fedea emanda, hura hildakoengandik berpiztua zuelarik.
- 32 Baina hildakoen piztueraz entzunda, batzuk iseka hasi ziren, beste batzuek, aldiz, esan zuten, "Honi buruz berriro entzungo dizugu."

2 Korintioarrei 4:14,18

- 14 Jesus Jauna berpiztu zuenak gu ere Jesusekin berpiztuko eta zuekin aurkeztuko gaituela jakinik.
- 18 ikusten diren gauzei begiratzen ez diegularik, baizik eta ikusten ez diren gauzei; zeren ikusten direnak behin-behinekoak baitira, baina ikusten ez direnak, betikoak.

## 5.urratsa

1.Joan 2:1,2

- 1 Nire haurtxook, zuei gauza hauek idazten dizkizuet bekaturik egin ez dezazuen. Eta norbaitek bekatu eginez gero, gure alde ari dena dugu Aitarekin, Jesu Kristo, zuzena dena;
- 2 eta Bera gure bekatuengatik barkamen-oparia da eta ez gurengatik bakarrik baizik eta mundu osoarengatik ere bai.

1.Timoteori 2:5,6

- 5 zeren Jainko bat baitago eta Jainkoaren eta gizakien arteko bitarteko bat, Kristo Jesus, gizona,
- 6 bere burua guztien alde ordainsaritzat eman zuena, zegokion garaian emandako testigantza.

## 6.urratsa

Lukas 1:31-33

- 31 Eta, hona hemen, haurra sortuko duzu sabelean eta seme batez erdituko eta Jesus izena jarriko diozu.
- 32 Hau handia izango eta Gorenaren Semea deituko da eta Jainko Jaunak emango dio Daviden, bere aitaren, tronua.
- 33 Eta errege izango da Jakoben etxearen gain menderen mendetan eta bere erreinuak ez du amaierarik izango.

Filipoarrei 2:9-11

- 9 Horregatik ere, Jainkoak gorenera goratu zuen eta izen ororen gainera dagoen izena eman zion,
- 10 Jesusen izena aldarrikatzean, belaun oro makur dadin, zerukoena eta lurkoena eta lur azpikoena,
- 11 eta mihi orok aitoren dezan Jesu Kristo Jauna dela, Jainko Aitaren aintzarako.

Mateo 7:21

“Jauna, Jauna” esaten didan oro ez da sartuko zeruetako erreinuan, baizik eta zeruetan dagoen nire Aitaren borondatea egiten duena.

Mateo 13:31,32

- 31 Beste parabola bat kontatu zien, esanez, “Zeruetako erreinua mostaza-hazi baten antzekoa da, hots, gizon batek, hura hartuta, bere soroan eroin zuena;
- 32 benetan hazi guztietan txikiena den arren, hazten denean, hala ere, barazkiak baino handiagoa da eta zuhaitz egiten; ondorioz, zeruko hegaztiek etorri eta haren adarretan habia egiten dute.

Mateo 13:45,46

- 45 Berriz, zeruetako erreinua perla onen bila dabilen merkatari baten antzekoa da;
- 46 eta balio handiko perla bat aurkitu eta alde eginik, zeukan guztia saldu eta hura erosi zuen.

Joan 3:3

Jesusek erantzun eta esan zion, “Benetan diotsut, norbait berritoki jaiotzen ez bada, ezin du Jainkoaren erreinua ikusi.”

Mateo 6:33

Baina lehenbizi bilatu Jainkoaren erreinua eta bere zuzentasuna eta gauza hauek guztiak emango zaizkizue.



## **Aipamenak**

1. W.B. Hinson
2. Idazle ezezaguna.
3. Dick Innesek aipatuta, Daily Encounter [www.actsweb.org/detoday](http://www.actsweb.org/detoday). Baimenez erabilita.
4. Margaret Prior
5. Adoniram Judson
6. B.S. Bangs
7. John Bunyon
8. Neskatzak istorio hau idazleari kontatu zion.
9. Idazle ezezaguna
10. H.A. Ironsidek kontatuta, Illustrations of Bible Truth, Moody Press, 1945, 34-35.orri.

# Ziurtagiria


(e)k \_\_\_\_\_ (e)k ziurtatzen du

Artzaina edo Irakaslea

(e)k

ikastaroko ikasgai guztiak ongi egin dituela

## **Nor da Jesu Kristo? Aurkitu bizi berria Kristorengan!**



*“Zeren Jainkoak hain maite izan zuen mundua, non bere Seme  
sortu bakarra eman baitzuen, harengan sinesten duen inor gal  
ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.” Joan 3:16*

\_\_\_\_\_ Data